

IRENE ELORTZA GEREÑO

Dena prest daukate gaur arratsaldean egingo den Donostia Zinemaldiaren 71. edizioaren inaugurazio-galarako. Entsegu orokorraren aurreko saioan harrapatu ditugu Eva Hache eta Gorka Otxoa, aurkezle lanetan ariko diren aktoreak. Umore onez ekin diote lanari, Bob Popen gidoia defendatzeko gogotsu, biak ala biak.

Mireia Gabilondo aktore, zuzendari eta gidoigileak zuzenduko ditu bai gaurko ekitaldia bai itxierakoa ere. Gidoiak, berriz, Bob Pop idazle eta krikariarenak izango dira. Eva Hache eta Gorka Otxoa aktoreek aurkeztuko dute inaugurazio-gala eta Hachek berak eta Loreto Mauleon aktoreak, berriz, amaierako gala. Audience musika-taldea izango da gala guztien soinu-bandaren arduradun.

Gorka Otxoaren iritziz zaila da spoiler egin gabe ezer kontatzea: "une dibertigarrien eta sakonen arteko oreka dauka galak, gidoi eta zuzendaritza aldetik nahasketa interesgarria lortu da". "Erritmoa dauka, ez da batere aspergarria izango!", baieztatu du Eva Hachek, "zaila da gala bat hartu eta telebistarako saio bihurtzea baina uste dut gidoi oso orekatua eta landua dagoela eta gala zoriontsua izango dela".

Ondo egindako lanaren lasaitasunarekin aurkeztuko dute gala, airtortu dutenez, naturaltasuna eta ilusioa kutsatzen saiatuko direlarik. "Zinemaldiak 71 urte betetzea ospakizun han-



Gorka Otxoa eta Eva Hache, atzoko entseguan.

ULISES PROUST

### Striking a balance between humour and seriousness

Everything's all prepared for the opening gala at the 71<sup>st</sup> San Sebastian Film Festival which will be held this evening at 20.30 in the Kursaal. The event will be directed by the actress, director and scriptwriter Mireia Gabilondo and hosted by the comedians Eva Hache and Gorka Otxoa with a script by the writer and cartoonist Bob Pop, while the group Audience will be providing the background music. Gorka Otxoa didn't want to spoil things by giving anything away but said that the gala achieved a balance between entertaining and serious moments, while Eva Hache confirmed that this was the case and stressed how difficult it was to turn a gala into a TV programme.

The thread running through the gala will be the extraordinary capacity of cinema to provide plural, unusual and multifaceted perspectives and the event will be broadcast live on ETB1, on the eitb.eus platform, on the Festival web site, on Channel 2 on TVE and on the RTVE Play platform.

## Ilusioaren erritmoan abiatuko da Zinemaldia

dia egiteko arrazoi pisutsua da", dio Segoviako komikoak.

"Zinemak begirada plural, ezohiko eta poliedrikoak eskaintzeko duen gaitasun harrigarria" izango da Zine-

maldiaren inaugurazio-galaren argumentu-lerroa, eta animazioak garrantzi nabarmena izango du, Mireia Gabilondoren eta Bob Popen hitzetan.

Gaurko inaugurazio ekitaldia

20:30ean hasiko da, Kursaal aretoan, eta zuzenean emango da ETB1en, eitb.eus plataforman, Zinemaldiaren webgunean, TVEren La 2 katean, eta RTVE Play plataforman.

  
**KELONIK**

antaviana  
VFX & POSTPRODUCTION

**SHARP**  
**NEC**

CON LA MEJOR TECNOLOGÍA  
LLEVAMOS TUS SUEÑOS A LA GRAN PANTALLA

